

HAMABOST ZAURI

3. atala: Hau ez da Hollywood

1.atalaren inguruko ariketa (23-31.orr)

Aukera ezazu erantzun egokia:

Izarri ___1___ eta supermerkatuko gizona gogoratu du. Alabarena esan eta begiak urtu egin zaizkiola iruditu zaio eta txistua ___2___ duela konturatu da. Gizajoa, pentsatu du Luisak, faltan botako du alaba, ziur ez duela asko ikusten. Berak Joseba ikusten ez duen bezala. Ritarekin ezkondu eta Bartzelonara bizitzera ___3___, gutxitan ikusten du Luisak bere seme bakarra, Joseba. Gabonetan, udan, aste santuan... Eta ___4___ esan dio semeari gehiago ___5___ behar direla, ilobak ___6___ ikusi nahi dituela, eta Josebak ere esaten dio, "bai, etorri beharko nuke gehiago... Ea lanean egun batzuk eskatzen ditugun..." Baina egunak aurrera doaz, eta gazteei egunak ___7___ joaten zaizkiela badaki Luisak, eta ___8___ du, baina hala eta guztiz ere faltan botatzen du Joseba, eta ilobak, Oihana eta Asier.

1	Ikusi	2	Irentsi	3	Itzuli zenetik	4	Gutxitan
	Begiratu		Erantzi		Joan zenetik		Gutxian
	Ikuskatu		Itsatsi		Ailegatu zenetik		Askotan
	Amestu		Ahantzi		Iritsi zenetik		Askoan
5	Urrundu	6	Hasten	7	Apurka-apurka	8	Galdegiten
	Aldendu		Hazten		Emeki-emeki		Ulertzen
	Ihesi		Hezten		Poliki-poliki		Erdiesten
	Etorri		Nahasten		Azkar		Galdetzen

2. **Zahartzaroari** dagozkion hainbat kontu jorratzen dira atal honetan, landu itzazue ideia horiek geroago idazlan bat egin dezazuen. Adibidez.

2.A. Zaharrak eta maskotak: adineko jende asko bakarrik bizi da, izan alargunak edo ezkongabeak direla, izan seme-alabek beren etxea sortu dutela. Horrek bakartasuna eta tristezia ekarri ohi ditu. Beraz, horiek saihesteko maskotak -batez ere katuak eta txakurrak- hartzen dituzte etxean, giza konpainiarik ezean konponbide onena delakoan.

2.B. Zaharrak eta ilobak:

2.C. Zaharrak eta ajeak:

2.D. Zaharrak eta auzokoak:

2.E. Zaharrak eta oroitzapenak:

2.F. Zaharrak eta telebista-irratia:

2.G. Zaharrak eta erretiro-saria:

3. Idazlana prestatzeko beste kontu garrantzitsu bat lexikoa da. Ondo egiteko sinonimia eta ordezkapen semantikoa jorratzea komeni da. Azpimarratu proposatzen dizkizueten esamoldeetatik zahartzaroaren gaineko idazlana egiteko egokienak jotzen dituzuenak.

3.A. Adinekoak/ zaharrak / agureak/ atsoak/ adintsuak/ zaharkituak/ zahar okituak/ urtetsuak/ onena emandakoak/ jubilatua/ erretiroa hartuak/ ile urdineko pertsonak.

3.B. Sendia/ leinua/ familiakideak/ etxeak/ gertukoak/ hurkoak/ senitartekoak.

3.C. Jagoleak/ inudeak/ emaginak/ zaintzaileak/ gizarte laguntzaileak/ atezainak/ ikuskatzaileak.

3.D. Oroitzapenak/ igarotakoak/ gomutak/ iragana/ geroa/carpe diem/etorkizuna.

3.E. Maskotak/ lagun

3.F. Ajeak/ minak/

3.G. Bakartasuna/

4. Idazlanerako eskema aukeratu. Bi eskema eskaintzen dizkizugu. Bietatik bat baliagarria da eta bestea INKOHERENTEA, baztertu beharrekoa. Zein da zer? Zergatik?

Gaia: Harremanak zahartzaroan

Sarrera: nire aitita zenak laurogei urtetan emaztea hartu zuen...

Tesia: gaur egun gauzak izugarri aldatu dira eta hirugarren adinekoen arteko harremanak gero eta sarriagoak dira.

Kausak: gauzak aldatu dira; bizimodua diferentea da; zahar gehiago dago...

Ondorioak: zaharrak gero eta gehiago egoitzetan daude, zaharrek ez daukate indarririk sexuan edo bikote berrietan aritzeko...

Konponbideak: adinekoek, osasun ona izanez gero, euren autonomia gorde behar dute, inongo leku ezezagunetara joan gabe eta euren etxeetatik alde egin gabe. Seme-alabek ulerberak izan behar dute eta gurasoen erabakiak errespetuz hartu, ez du inporta norekin oheratzen diren, euren diruaz zer egiten duten... Laburrean, ez dituzte adinekoak adingabeak balira bezala tratatu behar.

Iritzia: gaur egun bizi-itxaropena asko luzatu da, hainbeste luzatu, ezen hirugarren adinaz eta laugarren adinaz hitz egiten dugun. Baina askoz gehiago ez da luzatuko, mugara helduta gaude ehun urte inguruan. Baina ehun urte horiek albait ondoen igaro behar ditugu.

Sarrera eta tesia: gero eta harritzekoagoa eta urriagoa da hirugarren adinekoek ere giza harreman berriak egitea. Ez dugu guk, bada, adin horretan lagunduta eta atseginez bizi nahi izango? Ez dute, bada, esaten maitasunak ez duela ez adinik, ez arrazarik ez joerarik?

Kausak: gizartea aldatu da; gaur egun ez dago hain txarto ikusita urtetan sartuta egonda ere maitasun kontuetan ibiltzea; erlijioak indar handia galdu du; bizi-itxaropena luzatu egin da; jende zaharra gero eta gazteago eta indartsuago heltzen da adin horretara.

Ondorioak: bizipoz handiagoa dute, oro har, gure adinekoek; bidaiatzeko eta burua apaintzeko gogo bizia izaten dute; ekimen berrietarako gogotsu ikusten ditugu euretariko asko.

Konponbideak: Adinekoek, sasoiari izanez gero, euren independentziari eutsi egin behar diote, eta euren seme-alaben etxetara bizitzera jo, euren betiko giroan, euren ohiturekin segitzeko...

Ez dute senitartekoek eta auzokoen esamesen beldurrik zertan izan, gizarteari komeni zaiona egin behar dute beti.

Euren askatasunaz, sasoiari eta gorputzez disfrutatu egin behar dute. Hau da, hobe dute herentzietako dirua ilobentzat gordetzea, atzetik datozen belaunaldiek euren izerdia erabil dezatela zerbait eduki nahi badute bizitzan.

Iritzia: alargunek lutoa mantendu behar dute, inorekin berrirori ibili gabe, zendutako bikotekideari zor dioten errespetuagatik. Gainera, bizitza ia agortuta dutenez, azken urteetan carpe diem egin beharra dute, gogoetan eta oroitzapenetan murgilduta. Badakizue, hildakoa lurpera, bizia asera.

